




Karlos Garaikoetxeak errua besteei leporatzeagatik kritikatu zuen Ardanzen hitzaldia.

OLALDE

Lehendakariaren autokritika falta gaitzetsi du aho batez oposizioak

EUE: «EAJ-PSEk arazoak birsortu eta ekintza politikoa antzutu du»

Jose Antonio Ardanza
Lehendakariari
autokritika eza eta krisitik
ateratzeko irtenbide falta
leporatzean bat egin zuten
EA, EUE, UA eta PPk.
Ramon Jauregi
bozeramaile sozialistak ere
«besteen erruez» besterik ez
mintzatzea egotzi zion.


LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Goizean Ardanza lehendakariaren hitzaldia entzunda, talde parlamentarioaren txanda heldu zen arratsaldean. Xabier Gurrutxaga Euskal Ezkerrako eleduak EAJk eta PSEk azken urteotan izandako ituna baloratu zuen. «Funtsezkotzat jotzen diren arazoak konpondu beharrean, etengabe birsortu ditu eta ekintza politikoa antzutu egin du», azaldu zuen EUEko bozeramaileak.

Gurrutxagak, bestalde, Jaur-laritzaren politika ekonomikoa eta kulturala kritikatu zuen. Ildo horretatik, esaterako, aurtengo inbertsioa «defizit handikoa» izan dela esan zuen. «Inbertsioaren beherakada iazkoa baino handiagoa izan da».

Bestetik, kultur alorrean «kontsentsu murrizta ere ez» dela izan adierazi zuen. «Elkarriketari ezetza» eman izanaz hitz egin zuen eta EGUNKARIA eta AEKren adibideak eman zituen.

Beste alde batetik, Carlos Ga-



Jaime Mayor Oreja.

OLALDE

raikoetxea EAko bozeramaileak garapen estatutarioaz eta krisi ekonomikoaz zera aipatu zuen Ardanzen hitzaldiaz: «Lehendakariak esan du dena oso txarto dagoela baina errua besteena dela». Halaber, Ardanzak Gobernu zentrala kritikatzeko zergaitiei buruz galdetu zuen, PSE eta EAJk «elkarlan estuan» dihardutela kontuan harturik.

ADOSTASUNA ATUTXA SAILBURUAZ

EUE eta EAko bozeramaileek bat egin zuten Ardanzak autokritika falta izan zuela kritikatzean. Enriqueta Benito eta Jaime Mayor Oreja hurrenez hurren UA eta PPko eledunek ere berdin egin zuten. Azken honen esanetan, gainera,

lehendakariak egindako hitzaldiak «gizartearen desinteresa» eragiten duela deklaratu zuen.

Baina Ardanzak zentzu orokorrean erakutsitako jarrera alde batera utzirik, UAkoak Eusko Jaur-laritzaren Barne sailaren jokabidearen defentsa egin zuen. Juan Mari Atutxaren aldeko hitzak esan zituen UAkoak.

Enriqueta Benito UAko parlamentaria bat etorri zen orokorrean Jose Antonio Ardanza lehendakariak bere hitzaldian emandako ikuspegiarekin. Kri-siaren larritasuna dela eta Ardan-zak azaldutako kezkekin bat egin eta bere laguntza eskaini zion.

Estatutuaren garapenaren inguruan, Eusko Jaur-laritzan bi aurpegi eta bi jokaera daudela uste du UAko ordezkariak, eta PSOE duela gobernuakide gogoratu zion Ardanzari. Estatutua ez dela bete berretsi zuen Benitok ere.

Xabier Markiegi talde mistoko bozeramaileak bere sostengua agertu zion lehendakariari eta zati handia eskaini zion «gizarteak terrorismoaren kontra hartutako erabaki tinkoaz» hitz egiteari. «ETA amaiturik» dagoela esan zuen eta iragan 18an Donostian egin zen manifestaldian «galdu» zuelako iritzia eman zuen.

Bestalde, Ramon Jauregi bozeramaile sozialistak bat egin zuen Ardanzarekin kohesio sozialaz eta bakeaz. Hala ere, desadostasuna azaldu zuen autogobernuaz lehendakariak esandakoagatik. Jauregiren ustetan, datorren urteko hauteskundeak eta biharko Alderdi Eguna go-goan hitz egin zuen Ardanzak.

«EAJn ahaztuta omen zegoen biktismoa sumatu dut», esan zuen Jauregik. «Besteen arazoei buruz hitz egin du luze eta gutxi-egi euskaldunok egin behar dugunari buruz», erantsi zuen.

EAJk Alderdi Eguna ospatuko du bihar Salburuako zelaian


A. UNANUE / IRUÑA

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere jarraitzaileak bilduko ditu bihar Salburuako zelaian, 'Denok batera irabaztera' lelopean egingo duen Alderdi Egunean. Eguneko ekitaldi politikoa hamabi t'erdietan izango da, Xabier Arzalluz eta Jose Antonio Ardanzarekin. EBBko eta Eusko Jaur-laritzako lehendakariarekin batera, Xabier Ollo alderdiaren Iruñeko batzordekidea mintzatu da EGiren izenean.

Ollok atzo gogorazi zuenez, EAJk 1978. urteaz geroztik ospatu du Alderdi Eguna —Aralarren egin zuen aurrena— eta «gaur egun Europako kontzentrazio politiko handienetakoa da, handiena ez bada».

Aurtengo leloari dagokionez, batasun premia nabarmendu nahi izan dutela adierazi zuen Jose Antonio Urbio-la Napar Buru Batzarreko lehendakariak. Urbiolaren irudikoz, «batasun beharrari buruzko gogoeta egiteko garaia da, zatiketek, lurralde zatiketarik zein bestelakoak, aurrera egitea eragozten digute eta».

Era berean, bere mendeurrenaren atarian dagoen EAJk jatorrizko printzipioei eutsi diela azpimarratu zuen Urbiolak eta hori da, bere ustez, alderdiaren egonkortasunaren



Jose Antonio Urbio-la.

JOXE

zioa. «Sortu ginenean argi geneuzkan bi gauza: armek ez zutela gure helburuak lortzeko balio eta lau probintzia baino zerbait gehiago ginela, nazio proiektu bat duen herria alegia. Horregatik, nazio subirotasuna berreskuratzeko izan da hasiera-hasieratik gure helburua eta, egoeraren arabera estrategiak egokitu arren, horri eutsi diogu beti», azaldu zuen.

Nafarroako politikaz, bestalde, kezkatzeko bi gai aipatu zituen Urbiolak: intsumisioa eta Itoizko urtegiaren auzia. Lehenari dagokionez, despenalizazioa eskatu zuen jeltzaleak, «gizarteak hala sentitzen ez badu, ezin delako delitu izan».

CiU EAJ gabeko legegintzaldi itunean sartzeko prest dago

BILBO

Josep Antoni Duran i Lleida Nazioarteko Kristau-demokratien lehendakariorde eta Unio Democratica de Catalunyako presidentek CiUk EAJrekin «parekidetasun programatikoa nabarmenak» dauzkala adierazi zuen atzo Bilbon, baina baita PSOEek «eskaintza ona» eginez gero EAJ gabeko legegintzaldi itunean sartzeko prest egongo lirakeela gehitu ere, «jeltzaleekin harreman onak dauzkagun arren alderdi bakoitzak bere errealitatearen arabera jokatu behar duela».

Era berean, «Espainiako gobernagarritasuna ziurtatzeko prest» dagoela adierazi zuen baina horretarako alderdi sozialistak «berme batzuk» eskaini behar dizkiela zehaztu zuen.

Ercilla hotolean eskainitako prentsaurrêkoan politikari kataluniarrak esanikoaren arabera, «UCDren garaian ere erakutsi genuen jada Espainiako gobernagarritasuna ziurtatzeko daukagun boron-

datea. Hala ere, PSOEek ezin du jolastu gure borondatearekin; ez gaude PSOErri laguntza emate hutsaren alde. Neurri eta egiturazko aldaketak behar dira, eta oraingoz ez dakusagu horren zantzurik».

OSOKO Ildo horri ZUZENKETARIK EZ

Duranek bere proposamenak zehaztu zituen: «Greba Legea aldatu egin behar da, PSOEek egungoa sindikatuen presiopean onartu baitzuen. Horrez gain, iruzurraren aurkako borroka areagotu behar da, eta Gizarte Segurantzaren birmoldaketari ekin. Osasun arloan ere berrikuntzak behar dira, berau eragingarriago bihurtzeko. Eta noski, lan merkatuaren eraldakuntzari ekin behar zaio, baina PSOEek ez du horrelakorik egin».

Era berean, UDCKo presidentek Espainiako Gobernuari «konfiantza tartea» eskaini behar zaiola iritzi zion, baita aurrekontuen gaian oraingoz osoko zuzenketarik ez dutela aurkeztuko iragarri ere.

RIGOBERTA MENCHU-RI DIRULAGUNTZA

«Herri Indigenen bigarren goi bilera»

LAK.: 198.1.00536.9. Berriozar, Nafarroa.

elkarri